



**ORIOK OUDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2012ko irailaren 27a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzaile akzidentala**

Ibai Lertxundi Iribar

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



## Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2012ko martxoaren 28ko ohikoa bilkurakoa eta maiatzaren 31ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2011ko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Onartzea, egoki bada, urte batzuetarako kredituak eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean inputatuko diren gastuen banaketa.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 4/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 5/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 6.- Onartzea egoki bada, baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegua, Orioko udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzeko. Adjudikazioa lehiaketa bidez egingo da, prozedura irekiz eta arautze harmonizatuz.
- 7.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua.
- 8.- Onartzea, egoki bada, gaixorik dauden presoek eskubideei buruzko mozioa.
- 9.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

**1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2012KO MARTXOAREN 28KO OHIKOA BILKURAKOA ETA MAIATZAREN 31KO OHIKO BILKURAKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Miriam Uranga zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du ez zaiola oso serioa iruditzen aktak horrenbesteko atzerapenarekin egitea eta eskatzen du, aurrerantzean, udalbatzar bakoitzean aurreko udalbatzarreko akta onartzea.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, inork ez duenez egin inolako oharrik akten zirriborroen edukiari buruz, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ)], guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2012ko martxoaren 28ko ohikoa bilkurakoa eta maiatzaren 31ko ohiko bilkurakoa.

## **2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2011KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2011ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2012ko uztailaren 10eko GAOn (131. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharrak aurkezteko epea 2012ko uztailaren 11n hasi zen eta uztailaren 27an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Udalaren 2011ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

## **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URTE BATZUETARAKO KREDITUAK ETA EKITALDI EKONOMIKO BAKOITZEAN INPUTATUKO DIREN GASTUEN BANAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, honako arrazoiatik: sei hilabeteko atzerapena eskatu zuela, Orioko udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzea 2013ko udal aurrekontuaren kargura finantzatzeko eta, horrela, udal diruzaintzako soberakina erabili behar ez izateko. Ez daudela proiektuaren kontra, baina ez daudela ados udal diruzaintzako soberakina horrela erabiltzearekin.

Miriam Uranga zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: kontuan hartuta nolako arazoak dituen Udalak diru-sarrera arruntak sortzeko, udal kanpina da diru-sarrera arruntak gehitzeko Udalak duen aukera bakarra eta, horretarako, behar-beharrezkoa da bungalowen proiektua lehenbailehen abiatzea. Adierazten du, baita ere, jasoko diren diru-laguntzen estimazioa behetik egindakoa dela eta espero duela azken saldoa Udalaren aldekoa izatea.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udal gobernuarentzat lehenasunezkoa dela udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzea; eta, hortaz, guztiz justifikatuta dagoela udal aurrekontuan behar diren doikuntzak egitea inbertsio publiko hori gauzatzeko, azkenean interes orokorraren onerako izango dira-eta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**ONARTZEA** urte batzuetarako kredituak eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean inputatuko diren gastuen banaketa jasotzen duen espedientea.

#### **4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 4/2012 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2012 espedientea kredituak transferitzeko modalitatean egina dago eta 55.378 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 4/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 55.378 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza–kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 5/2012 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2012 espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 601.082 euroko zenbatekoa du.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, honako arrazoiengatik:

- Espediente honetan gehitu diren partida ia guztiak udal diruzaintzako soberakinaren kargura finantzatu dira eta, EAJren ustez, hori gehiegikeria da eta beste finantzazio-bide batzuk landu behar ziren.



- Kreditua aldatzeko 5/2012 espediente hau onartzen bada, udal diruzaintzako soberakina 7.000.000 euro inguruko kopurura jaitsiko da eta, bide horretatik segituz gero, laster bukatuko da soberakin hori; eta kontuan hartzekoa da oraindik agintaldiaren erdira ere ez garela iritsi.

Alkateak hartzen du hitza eta erantzuten du oraindik ez direla iritsi Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio-zentroa finantzatzeko aurreko udal gobernuak iragarri zituen diru-laguntzak eta, bestalde, udal gobernuarentzat lehentasunezkoa dela udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzea; eta, hortaz, guztiz justifikatuta dagoela udal aurrekontuan behar diren doikuntzak egitea inbertsio publiko hori gauzatzeko, azkenean interes orokorraren onerako izango dira-eta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 5/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 601.082 euroko kopurua du.

**2.-** Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

## **6.- ONARTZEA EGOKI BADA, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, ORIOKO UDAL KANPINEAN BUNGALOWAK HORNITU ETA INSTALATZEKO. ADJUDIKAZIOA LEHIAKETA BIDEZ EGINGO DA, PROZEDURA IREKIZ ETA ARAUTZE HARMONIZATUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko irailaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- **ONARTZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta baldintza teknikoek plegua, Orioko udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzeko. Adjudikazioa lehiaketa bidez egingo da, prozedura irekiz eta arautze harmonizatuz.

2.- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

### **1.- Erakunde adjudikatzailea.**

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza.

### **2.- Kontratuaren xedea.**

- a) Xedearen deskribapena: Orioko udal kanpinean bungalowak hornitu eta instalatzeko kontratua, baldintza teknikoek eta baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen arabera.
- b) Epea: Bi hilabete.

### **3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**



- a) Tramitazioa: Arautze harmonizatua.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Modua: Lehiaketa.

#### **4.- Licitazioaren kopurua.**

706.000 euro (BEZa aparte). Lizatzaileek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

#### **5.- Bermeak.**

Behin betikoa: Adjudikazioaren zenbatekoaren %5 (BEZa aparte).

#### **6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

#### **7.- Dokumentazioa lortzeko.**

Espedientearen dokumentazioa azter daiteke bai Orioko udal idazkaritzan eta bai Orioko Udalaren webguneko ([www.orioka.com](http://www.orioka.com)) Kontratatzailearen Profilean.

#### **8.- Proposamenak aurkeztea.**

- a) Epea: 45 egun natural, lizitazioaren iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza-orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.
- d) Orduetgia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

#### **9.- Proposamenen irekiera.**

- a) Tokia: Orioko Udala
- b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo asteko ostegunean.
- c) Ordua: 12:00etan.

### **7.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO PARKE ETA LORATEGIAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA.**





Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- UTE ZERBITZU, SL & FCC SA
- 2.- EULEN, SA
- 3.- TXUKUN LORAZAINTZA, SL
- 4.- GARBIALDI, SA
- 5.- IRATZE LORAZAINTZA, SL
- 6.- KIMUBAT, SL
- 7.- IKERLORA, SL
- 8.- JOKIN PAGOLA MANTEROLA
- 9.- ENARA JARDINERIA, SL
- 10.- LORAZAINTZA ILUNTZE – VICTOR MANUEL ELVIRA ELVIRA
- 11.- GANBOA LAN, SL
- 12.- UTE MURGIL ERAIKUNTZAK, SL & JARDINERIA TECNATURA, SL
- 13.- TALHER, SA
- 14.- URBASER, SA

Kontratazio mahaiak, espedientean dauden txosten teknikoak kontuan hartuta, honako hau proposatzen du: kontratua URBASER, SA entitate merkantilari adjudikatzea, bera delako puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, baldintza administratibo partikularren orrian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2012ko apirilaren 19an eta maiatzaren 25ean egindako plikak irekitzeko ekitaldia.



2.- Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua URBASER, SA entitate merkantilari **ADJUDIKATZEA**. Adjudikazioaren urteko prezioa 139.357,49 eurokoa da (BEZa, gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne).

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (5.905 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkion lege errekurtsoak azalduz.

## 8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GAIXORIK DAUDEN PRESOEN ESKUBIDEEI BURUZKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

*Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzeraezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.*

*Preso gaixo hauek sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik. Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.*

*Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hainbat dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berberak kontuan izanik, kaleratu behar direnak. Presoen eta beren senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarritzko zutabeak urratzen ari dira Madrilgo arduradun politikoak.*

*Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoek eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua*



*eta zaintza medikoa behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.*

*Hori guztia kontuan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu osoko udalbatzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:*

*1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean, indarrean dagoen legea betez, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.*

*2.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera horrek, bai berentzat zein beren senitartekoentzat ere zigor gehigarria suposatu ez dezan.*

*3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako epaileari bideratzea.*

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** gaixorik dauden presoek eskubideei buruz Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**